

## Inaxio Perurenak, marka

215 kilokoa jaso du esku batez ▶ 7



## Maila igotzea gertuago du Tolosak

**ORDIZIAN** ▶ «Hiru puntu garrantzitsu» lortu ditu Ordiziako zelaian 1-2 irabaziz

**HIRU PUNTU** ▶ Ligako zortzi partidu falta direnean, hiru puntu ateratzen dizkio EHU/UPVri ▶ 2



Tolosarrak —gorriz— 1-2ko emaitza defenditzen. J.SAIZAR



JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

## Otañok erraz irabazi du lehen apustua

**IBARRA** ▶ Xabier Mindegari zazpi minutu atera zion Donezteben jokaturako apustuan; Labaiengoa uste baino apalago aritu zen ▶ 6

**AMEZKETA** ▶

### Ekitaldiz beteriko Kultur Astea antolatu da

Bertso afaria izango da amaitzeko ▶ 5

**VILLABONA** ▶

### Herritarrei kontsulta, Larrea auzoan aparkalekuak egiteko

Udalak 61 aparkaleku egin nahi ditu, ibilgailu kopurua handitu egin delako ▶ 4



IMANOL GARCIA

**LEITZA** ▶

### Liderrarekin hutsean berdintzea lortu dute

Liga irabazteko aukera du Aurrerak ▶ 7

ASTEBURUKO ESKUALDEKO KIROL EMAITZAK ▶

ARETO FUTBOLA

**Emakumezkoen Ohorezko Maila.**  
Valdetires Meiras-Hegoalde 4-3

**Neskak. Kopa.**  
Laskorain-Tinta Villabona 2-3

**1. Maila A.**  
Carnicerias Saenz-Ibarra 4-3

**Liga Autonomikoa.**

Trasportes Lakuntza  
-Oiarzun 2-6

**ESKU PILOTA**

**GARZIANDIA LAU T'ERDIKO TXAPELKETA**

**Finalerdiak.**  
Mikelperezina-Zubieta / Bengoetxea-Ontsalo 22-15  
Baez-Dominguez / Cerezo-Huarte 13-22

**ESKUZ BANAKAKO TXAPELKETA**

Esain-Lasa III.a 20-22

**FUTBOLA**

**Gorengo Maila.**

Ordizia-Tolosa 1-2  
Saillkapena ▶  
**1. Tolosa 65 puntu**  
2. UPV/EHU 62 puntu  
3. Ordizia 57 puntu

4. Real Union B 54 puntu  
5. Zarautz 51 puntu  
6. Trintxerpe 45 puntu  
7. Hondarribia 41 puntu  
8. Mondragon 41 puntu  
9. Pasajes 40 puntu  
10. Zestoa 40 puntu  
11. Touring 39 puntu  
12. Mutriku 39 puntu  
13. Aloña Mendi 34 puntu  
14. Anaitasuna 34 puntu  
15. Aretxabaleta 33 puntu  
16. Orioko 33 puntu

17. Beti Gazte 32 puntu  
18. Urola 32 puntu  
19. Bergara 31 puntu  
20. Oiarzun 15 puntu

**Lurraldeko 1. Maila.**  
Aurrera-Baztan 0-0

**Jubenilen Euskal Liga.**  
Durango-Tolosa 1-0

**Kadeteen Euskal Liga.**  
Tolosa-Reala 1-5

TOLOSA ▶ FUTBOLA

LEIRE MONTES

Azken txanpan da 2004-2005 Liga Gorengo Mailan. Tolosak lider jarraitzen du, eta amaiera arte lehenengo postuari eusteko asmoa berresten du, gainera, partidaz partida. Igandean ere hiru puntuak etxera ekarri zituzten urdinek. Balio handiko hiru puntu, du-darik gabe. 1-2 irabazi zioten Ordiziari Altamira zelaian, eta goierritarrengandik aldentzea lortu dute horrela.

«Partida garbia, giro onekoa» jokatu zuten bi taldeek Ordizian. «Txukun, kontzentrazio handiz eta zelaian ondo kokaturik» aritu ziren Tolosakoak, Jose Mari San Sebastian taldeko delegatuaren iritziz. «Lehendabiziko zatian gure nagusitasuna nabaria izan zen. Dena den, aukera asko ere egin genituen sortu», azaldu du. 10 minutuan Jonak indartsu jaurti zuen falta, baina De Marcos Ordiziako atezainak geldiketa ona egin zuen. 12. ean, berriz, Ordiziak jaurti zuen baloi arriskutsua, baina Apezetxea Tolosako atezainak bikain gelditu zuen.

39. minutuan, Gorka Blanco-ri egindako faltagatik, epaileak bigarren txartel horia erakutsi zion Ordiziako atzelari bati, eta goierritarrek 10 jokalarirekin aritu behar izan zuten ordutik. Falta horretatik iritsi zen Tolosako lehendabiziko gola: Lasak bidali zuen baloia sarera. Lehen zatiko azken segunduan 0-2koa ikusi zuten zale askok, baina Elolak huts egin zuen ate aurrean.

Bigarren zatia hasi eta berehala asetu zituzten beren nahiak urdinen zaleek, 46. minutuan Lasak Tolosaren bigarrena sartu baitzuen. Ordiziak, orduan, asko arriskatu zuen: «Partidak ihes egingo ziela ikusten zuten. Horrelakoetan, berdin zaizu 0-2gatik, 0-3gatik edo 0-4gatik galtzea, eta horregatik ausartzen zara gehiago, etsi-etsian», azaldu du San Sebastianek. Eraso horietako batean iritsi zen Ordiziaren gola, behin betiko 1-2koa.

# «Ea denon artean taldea mailaz igotzea lortzen dugun»

«Hiru puntu garrantzitsu» lortu ditu Tolosak Ordizian, eta Goierrikoengandik aldentzea lortu du; EHUri so da orain



Bizkarrez, Jose Manuel Luluaga (ezkerrean) eta Kepa Mendizabal (eskuinean) Tolosako entrenatzaileak, bi taldeetako jokalariei begira, igandean, Altamiran. Urdinek gorritz jokatu zuten Ordizian. JOXEMI SAIZAR

**EHUtik aldendu nahi**

Partida zaila zen Tolosarentzat igandekoa. Ordizia saillkapeneko hirugarren postuan zen, urdinengandik gertu. Horregatik zen «oso garrantzitsua» hiru puntuak etxera ekartzea. Partida irabazita, bi taldeen arteko aldea handitzea lortu du Tolosak: hirugarren postuan jarraitzen dute Goierrikoek, baina orain zortzi puntura —65 puntu ditu Tolosak, eta 57 Ordiziak—.

«Beldur handiagoa» ematen dio San Sebastiani EHU/UPV taldea. Bigarren postuan da, eta 62 punturekin, oso gertutik

jarraitzen du Tolosako taldea —asteburu honetan 1-3 irabazi du Hondarribiaren kontra—. Tolosako delegatuaren esanetan, oso jokalaririk onak ditu EHUk: «Realaren beheko taldeetako bat da, oso ona. Jokalariak gaztetxoak dira, baina primeran jokatzen dute. Horregatik daude dauden lekuan».

Ligako azken partidaren izango du aurkari Tolosak EHU taldea. Etxetik kanpo jokatuko dute urdinek. Ordurako, duten aldea gutxienez puntu batean handitu nahi dute: «Dugun aldea mantendu nahi dugu, eta ahal dugun gehien handitu. Horrela, azken partidara la-

saiago joateko aukera izango dugu».

Zortzi jardunaldi dituzte aurkeztu Tolosak, lau etxean eta beste laurak etxetik kanpo. Larunbat honetan Mutriku hartuko du Berazubín, 16:30ean. Ondoren, Oiarzun, Bergara, Hondarribia, Trintxerpe, Real Union B, Anaitasuna eta EHU/UPV mendean hartzen saiatuko dira urdinak.

**Taldea eta zaleak, ilusioz**

Gorengo Mailako Liga lehen postuan amaitzen duenak lortuko du Hirugarren mailarako iguera. Bigarren saillkatuz gero,

**ORDIZIA ▶ 1**  
**TOLOSA ▶ 2**

**Ordizia.** De Marcos, Mujika, Peio, Iraola, Lekuona, Garmendia, Clemente (Etxeberria, 83m.), Oiarbide (Mendez, 73m.), Irastorza, Odriozola, Insausti (Aramendi, 43m.).  
**Tolosa.** Apezetxea, Lacalle, Unai, Jon, Aimar, Artola, Orue, Elola (Romero, 63m.), Lasa (Ilunbe, 85m.), Regillaga (Errasti, 83m.), Blanco (Zuloaga, 73m.).  
**Golak.** 0-1: Lasak (40m.); 0-2: Lasak (46m.); 1-2: Odriozolak (54m.).

**DATUA ▶**

Gorengo Mailako 2004-2005 Liga amaitzeko zortzi jardunaldi besterik ez dira geratzen. Etxean lau jokatuko ditu Tolosak, eta beste lau kanpoan, txandaka. Talde hauek izango ditu aurkari:

**Etxean.** Mutriku —larunbatean, 16:30ean, Berazubín—, Bergara, Trintxerpe eta Anaitasuna.  
**Kanpoan.** Oiarzun, Hondarribia, Real Union B eta EHU/UPV.

igoera faseko partidak jokatu behar ditu taldeak, EAeko maila horretako beste taldeekin. «Horrelakorik pasatu behar ez izateko gogor borrokatuko» diresela dio San Sebastianek: «Lehenak amaitzea da gure erronka».

Jokalariak «ilusio handiz» direla dio delegatuak: «Oso pozik nabaritzen zaie, gogotsu. Eta hori oso ona da». Zaleak ere kontent sumatzen ditu taldeko ordezkariak: «Ordiziara, esaterako, Berazubira baino zale gehiago joan zen. Gogotik animatu zituzten jokalariek, eta oso giro ona sortu zuten. Ea denon artean taldea mailaz igotzea lortzen dugun».

ARETO FUTBOLA ▶

# Ustekabean, baina galdu egin du Hegoaldeak Galizian (4-3)

Valdetires-Meirak taldekoek joko motela egin zuten tolosarren kalterako; azken minutuetan «gu probokatzen saiatu ziren, jokalarik gazteak genituela baliatuz»

## VALDETIRES-M. ▶ 4

### HEGOALDE ▶ 3

**Valdetires-Meirak.** Vanesa Fernandez, Veronica Diaz, Cristina Granados, Carolina Leira, Candida Lago, Maria Minguez, Teresa Martin, Isabel Paz, Paula Perez eta Natalia Seco. Entrenatzailea: Carlos Gracia.

**Hegoalde.** Nerea Arana, Miriam Arana, Nerea Salazar, Eduarne Agirretxe, Amaia Azpilikueta, Naiara Mayo, Gemma Zelaia eta Esther Videra. Entrenatzailea: Maite Argote.

**Golak.** 1-0: Candida Lagok (13m.); 2-0: Maria Minguezek (15m.); 2-1: Nerea Salazarrek (29m.); 2-2: Nerea Salazarrek (30m.); 3-2: Teresa Martinek (35m.); 4-2: Teresa Martinek (36m.); 4-3: Nerea Salazarrek (37m.).

**Arbitroak.** Juan Jose Naray, Jose Aparicio eta Jose Menendez.

## IRATXE ETXEBESTE

Ezinean dabilta azkenaldian Hegoaldekoak. Lana gogotik egin arren, aldeko emaitzarik lortu ezinik. Larunbatean, esate baterako, Galiziararen zuten bidaia Maite Argotereren neskek Ferroleko Valdetires-Meirak taldearen kontra aritzeke, eta ustekabeko emaitza lortu zuten, berriz ere: 4-3.

«Ez genuen uste talde horren aurkako partidua galduko genuenik, baina azkenean ezin izan genion talde horri aurrea hartu», adierazi du Hegoaldeko jokalariek. Valdetires-Meirak taldea sailkapen orokorreko azken postuetan izan da aste askoan, eta 18 urtetan Ohorezko Mailan jardun duen taldea berpizteko helburuarekin, taldean denboraldi askoan jardun duten izen handiko jokalariek berreskuratzeko ahalgin handia egin du berriki. Ohorezko Mailari ezin agur esan hainbeste urteko lanaren ostean.

Izatez, tolosarrek bazekiten jakin ez zihozela Galiziararen irabazteko baldintzarik onenekin, arrazoiz ezberdinak tarteko huts egin baitzuten Lourdes

Zuriarrainek, Miriam Pradosek, Isa Barriok, Itziar Aldeza-balek eta Maider Lopezek. «Irabazteko itxaropena ez genuen, hala ere, azken unera arte galdu», diote Hegoaldekoek, hiru puntuen bila ez ezik, haien nagusitasuna erakusteko asmoarekin ere abiatu zirelako.

Partidu hasierak berak ezarri zituen norgehiagoka osoaren oinarriak. Galiziarrek, aurkari indartsuen kontra ari zirela jakitun, neurketa motela jarri zuten abian, zituzten bitarteko eskasak, nolabait, estaltzearen. Txapelketako kantzari txikiena izateak defentsa itxieren aldeko apustua egitea zilegiztatzen zien etxekoei. Jokaldi geldoak egin zituzten era horretara, erritmo oso eskasak, taldearen baina, bakar-kako jokaldiak ahalbidetzen zituztenak. «Taldek jokalarik beteranoenen esku utzi zuten partidua uneoro taldeko arduradunek, eta guri min handia egin zigun horrek».

Gehiago omen daki zakur zaharrak zaharra izateagatik zakur izateagatik baino, eta hori argi utzi zuten larunbatean Valdetires-Meirasekoek. Markagailua estreinatzeke zegoela oraindik, Teresa Martin jokalariek bostetan eskatu zion barkamena Hegoaldeko atezainari egindako faltak «nahi gabe» egindakoak zirela esanez. Falta larriak egin zizkion Martinek Miriam Aranari, eta epaileen «pasotismoaren» aurrean, Hegoaldekoen jokaldiak geraraztea eragin zuen horrek.

Joko hori geratzen saiatu zen Hegoalde etenik gabe, erritmo aldaketak eta bilatuz eta «monotonia hura hautsi nahian», baina ez zuten haien helburua lortu, batez ere lehen zatian, galiziarren jokoan jausi zirelako. Etxekoek zorte handia izan zuten, gainera, Hegoaldekoen bitan galdu zuten baloiaren jabe eginez, kontraeraso gogorretan bi gol sartu zizkiotelako Miriam Aranari. Hegoaldekoek sarriagotan izan zuten gola sartzeko aukera, eta hala eta guztiz ere desabantaila handiarekin eta ahozabalik joan ziren tolosarrak aldageletara atsedendian, gertatutakoak zur eta lur utzi zituelako denak. Atsedendia sosegu hartzeko baliatu zuten Hegoaldekoek.

«Ondo jokatu zuten gero eta baloia behar bezala erabiltzen asmatuz gero irabazteko aukerak bagenituela pentsatuz irten genuen kantxara bigarren zatian», diote tolosarrek: «Aurkari atera gerturatzea; besterik ez genuen behar markagailuari buelta emateko».

## Nahi izatea ez baita aski

Segituan lortu zuten Hegoaldekoek markagailua berdintzea eta galiziarrei beldur pikka bat sartzea, baina berehala aldatu zuten aurkari jokatzeko modua. «Erritmorik gabeko jokatik jokaldi azkarretara eta nahasietara pasatu ziren oharkabean. Gainera, gu probokatzen ahalegindu ziren, uneoro kexa-

tuz, taldean jokalarik gazteak genituela aprobetxatuz», argitu du Maite Argotereren neskek. Epaileek kantxatik kanpora bidali zuten Nerea Salazar bitan txartel horia atera ostean, eta Martinek bi aukera izan zituen gola sartzeko; bietan asmatu zuen.

Dena den, esan behar da azken minutuetan Hegoalde egin zituela partiduko erakustaldi bakarrak, eta gola egiteko aukerak ere izan zituela behin baino gehiagotan, baina zutoina jo zuen horietako batek, eta galiziarren atezainak gelditu zituen beste bi. Galdutako beste hiru puntu tolosarrentzat.

Berazubin jokatu du datorrena Gironellaren aurka, larunbatean, 19:00etan.



## Lasa III.ak 22-20 irabazi dio Esaini Beotibarren

**PILOTA** ▶ Esainen 2005eko buruz buruko ibilaldia bukatu da. Izan ere, huts egin zuen Burlatoko aurrelariak Beotibarren atzo Lasa III.aren kontra jokatu zuen partiduan. 22-20ko emaitzarekin nagusitu zen Oscar Lasa. Bi zati izan zituen norgehiagokak: Iñaki Esainek arerioa menperatu zuen (2-10) lehenengoan, sakeen eta joko azkarren bitartez. Lasa ondo aritu zen gero pilotean, berak gustuko duen materialarekin; Esainek, ordea, ez zuen behar adina pazientzia eduki piloten hari eusteko. 66 minutukoa izan zen partidua, eta 267 pilotakada eman zituzten pilotariek. 7 tanto egin zituen sakez Lasa III.ak; 6 Esainek. **IRATXE ETXEBESTE**

## TELEFONOAK ▶

### LARRIALDIAK

▶ 112

**Alegialdea.** Osasun z.: 653212  
**Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 69 24 23

**Bidegoian.** Medikua: 68 11 34

**Ibarraldea.** Osasun etx.: 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29

**Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20

**Leitza.** Osasun z.: 948 510800

**Lizartza.** Medikua: 68 20 77

**Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbol: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion Klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdia)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ Tolargi: 65 00 16

▶ Iurrarrendi egoitza: 67 03 25

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Erteaintza: 53 88 20

▶ Tolosa gasa: 67 53 20

**Villabona-Aitzondo.**

Anbulatorioa: 00 69 70

**Zizurkil.** Aitzondo zerbitzu: 693930

### GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Tolosaldea bus: 65 06 21

▶ Leitzaeran autob.: 948 221015

▶ Taxia: 67 04 20

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

### KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04

▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32

▶ Tipi itapa ald.: 948 631888

▶ Txolarre Irratia: 69 80 38

▶ Karrape Irratia: 948 610914

### GUARDIAKO FARMAZIAK

**Gaur.** Bronte, C. Korreo kalea,

20 (Tolosa). 943 67 60 13.

Larraia. Elbarren, 95 (Leitza).

112.

### TOLOSALDEKO HITZA

**Publizitatea.** 661 67 88 18.

tolosaldean\_public@tolosaldeko

hitza.info

**Tolosa.** 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

**Villabona-Aitz.** 687 41 00 22.

villabona-aitzondo@tolosaldeko

hitza.info

**Anoetaidea.** 687 41 00 22

anoetaidea@tolosaldeko-hitza.info

**Ibarraldea.** 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

**Alegialdea.** 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

**Leitzaidea.** 687 41 01 18.

leitzaidea@tolosaldeko-hitza.info

## iragarki laburrak ▶

### LANA

**Tolosan.** Tolosan zerbitzari bat

behar da. Esperientziaduna.

Telefonoa: 635 700 559.

## VILLABONA ▶ HIRIGINTZA

# Larrea auzoan aparkalekuak egiteko herritarrei kontsulta

Villabonako Udalak abiatu du ekimena, azken urteotan izan den ibilgailu kopuruaren handitzea dela eta; guztira 61 aparkaleku egiteko asmoa dago

IMANOL GARCIA

Villabonako Udalak jasotako datuen arabera, nabarmen hazi da ibilgailuen kopurua herrian. Egoera horren aurrean, «herrian trafikoak eta aparkalekuak sortzen duten arazoari irtenbide orokorra eman behar zaio» Udalaren ustez, eta jada hasia dagoen arau subsidiarioak berriz aztertzeke estudioa amaitu bitartean «gaur egungo egoera ahal den heinean eta epe laburrera hobetzea ekarriko duten proiektu zehatzak bultzatu ahal daitezke moduan».

Horrela, Larrea auzoan 61 plazatarako udal aparkaleku bat eraikitzeari buruzko kontsulta abiatu du Udalak. Auzoko 26, 27, 28 eta 29 blokeen artean dagoen espazio publikoaren azpian lurpeko aparkaleku bat eraikitzeke moduan da Udala, eta «horren bideragarritasuna aztertzearen egiazko demanda ezagutu beharrean dago, hau da, kokapen horretan garaje plaza bat eskuratzeko interesa duten bizilagunen kopuru zehatza».

Printzipioz, eta etorkizunean egin behar izan daitezkeen aldaketak kontuan hartu gabe, proiektuak honako ezaugarriak ditu: Larrea auzoan kokatuko da; 61 plaza izango lituzke, guztiak itxiak, 2'70 x 5'50 metrotakoak gutxienez eta 2'90 x 5'50 metrotakoak gehienez, al-



Ibilgailuen kopuruak nabarmen egin du gora, Udalak dituen datuen arabera. I. GARCIA

tuerak 2'45 eta 3'09 metro bitartekoak izanik; eskuratzemota 75 urterako administrazioako emakida izango zen; plaza bakoitzeko prezio orientagarria 18.000 eurotako da, BEZa barne; esleitzeko prozedura zozketa publikoa, bere garaian finkatzen diren oinarriak jarraituz; ordaintzeko modua zehazteke dago, hasera batean interesatuta daudenen kopuruaren arabera.

Interesa dutenek Udalak buzoneatu duen inprimakia bete

behar du eta Udaleko Hirigintza eta Obren bulegora (udaletxeko 2. solairua) maiatzaren 6a baino lehen eraman. Jasotzen diren eskaeren kopuruaren arabera zehaztuko dira proiektuaren bideragarritasuna eta ordaintzeko era.

Proiektua bideragarritzat jotzen bada, behin betiko zerrenda osatzeko epe berri bat irekiko da. Orain interesa azaltzen duten guztiak pertsonalki jakinaraziko zaie noiz irekitzen den epe berri hori.

## Ibilgailuen kopurua gora

Villabonako ibilgailuen parkea 702 unitatetan igo da Udalak dituen datuen arabera. Horietatik 678 ibilgailuei dagozkie, eta gainontzekoak, 24, kamioiei. Horren ondorioz, 1991n zeuden 1.737 ibilgailu eta 151 kamioietatik, 2003an 2.590 izatera iritsi dira, 2.415 eta 175 hurrenez hurren. Datu horiek denboraldi horretan jasandako biztanle-igoerarekin erlazionatuz, Villabonan biztanleko 3,1 ibilgailu izatetik (1991) 2,4 izatera (2003) pasa dira.

Herritarren eta ibilgailuen gehikuntza herriko erdigunean gertatu da batik bat. Gune hori ia gainditu ezinak diren bi trabek mugatzen dute: N-1 autobideak eta Oria ibaiak. Horrek zabalduz hazteko zailtasun handiak suposatzen ditu, eta ondorioz geroz eta dentsifikazio gehiago ekartzen du, horien adibide argiak trafikoaren kongestioa eta aparkalekurik eza izanik.

Bestalde, «badirudi datozen urteetan ibilgailuen parkeak gora egingo duela» azaldu du Udalak. «Beraz arazoa geroz eta larriagoa izango da baldin eta ez badira neurri egokiak hartzen. Neurri horiek ziurrenik kaleak aparkaleku gisa erabiltzeari buruzko kontrol handiagoa ekarriko dute».

## iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13  
**VILLABONA**  
Tel.: 943 69 68 56  
mug.: 616 93 17 88



**Irua.** Eraikuntza berriko etxea. Egongela, sukaldia, 3 logela eta 2 bainugela. Eguzkitsua. Garaje eta trastelekua. 49.000.000 pezeta.

**Etxesagasti.** 943 696 856.

**Tolosa.** Eraikuntza berria. 85 m<sup>2</sup>-ko etxea, bi terraza, garajea eta 100 m<sup>2</sup>-ko txokoa bainugelarekin. Giltzak irailan. Etxesagasti. 943 696 856.

**Ibarra.** Eraikuntza berriko etxebizitza altu polita. 2 logela. Trastelekua. Garajea aukeran. 42.000.000 pezeta. Etxesagasti. 943 696 856.

**Zizurkil.** Erabat eraberritutako etxebizitza bi logelarekin. Dena kanpoaldera. 3 balkoiekin. 33.800.000 pezeta. Etxesagasti. 943 696 856.

**Zizurkil.** 3 logelako etxebizitza. Erdizka eraberritua. Ilogailua. Trastelekua. 36.000.000 pezeta. Etxesagasti. 943 696 856.

**Villabona.** 72 m<sup>2</sup>. Egongela, sukaldia, 2 logela eta bainugela.

Eraberritua. Trasteleku handia. Etxesagasti. 943 696 856.

**Andoain.** Mordenoa. Kapritxoz eraberritua. 70 m<sup>2</sup>. Argitsua. Trastelekua. Etxesagasti. 943 696 856.

**Andoain.** 104 m<sup>2</sup> erabilgarria. 4 logela, 2 balkoi. Berritzeke. Ilkuspiegiekin. Trastelekua. Etxesagasti. 943 696 856.

**Zizurkil.** Bakarkako etxea. 110 m<sup>2</sup> x 3 altuera. 2.500 m<sup>2</sup>-ko lursaila. Kokapen ona. Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Eskaera handia** dela eta, etxebizitzak, bakarkako etxeak, baserriak eta nekazal eta hirigintzarako lursailak behar dira, alokairuan edo salmentan. Itxaron **zerrenda dugu.**

## VILLABONA ▶

## Sukaldaritza ikastaroa hilaren 8tik 29ra

Irrintzi elkarteak antolatu du eta Jokin Zabala izango da irakaslea

I. GARCIA

Sukaldaritza ikastaroa antolatu du Irrintzi elkarteak, Villabonako Udaleko Kultura Batzordearen laguntzaz. Hilaren 8tik 29ra bitartean egingo da ikastaroa, astelehen asteazken eta ostiraletan. Jokin Zabala izango da irakaslea eta sukaldaritza orokorrari buruz ariko da eta beriziki ehiza, ahatea eta arrinari buruz.

Bestalde, Roberto Ruiz sommelieraren eskutik ardoei buruzko hitzaldia eta ardo kata izango da ikastaroan zehar. Izen emateak Kultura Etxean eman daitezke arratsaldeko 16:00ak arte, 943 69 16 55 telefonoan. Ordu horretatik aurrera 699 058 241 telefonoan eman daitezke izena.

## LITERATURA ▶

## Beterriko Liburua literatur aipamena

I. GARCIA

Urtero lege, datorren maiatzaren 5ean izango da 2004 urteko Beterriko Liburua literatur aipamena. Asteasuko udal aretoan izango da sariemate ekitaldia, 19:30ean hasita. Liburu irabazlea aukeratzeko irakurleen partaidetza eskatzen dute antolatuzaileek. Hilaren 20an amaituko da horretarako epea.

2004 urtean gogokoan izandako liburua sarituko da. Proposamenak egiterakoan, bi liburu bozkatu daitezke, betiere, lan bat lehenetsiz. Proposamenak bidaltzeko: internetez, [www.larramendi.org](http://www.larramendi.org) helbidean edo [beterrikoliburua@topagunea.com](mailto:beterrikoliburua@topagunea.com); postaz Amasa-Villabonako 44. posta kutxa; 943 69 64 50 telefonoan eta *Beterriko liburua* aldizkariaren 22. orrialdeko txarteltxoan.

AMEZKETA ▶ KULTURA



Etzi *Hitzak patriketan* umeentzako antzerkia izango da. Argazkian, aktoreak beste saio batean. G. AZKUE

# Ekitaldiz beteriko agenda antolatu dute Kultur Asterako

Lau solasaldi eta umeentzako antzerki bat eskainiko dira; astea bertso afariarekin amaituko dute ostiralean

NOELIA LATABURU

Atzo eman zioten hasiera Amezketan Kutxaren eta Udalen ekimenez antolaturiko Kultur Asteari, Josune Bereziartuaren *Munduko eskalatzailerik onena* hitzaldiarekin. Aste honen harira lau hitzaldi izango dira entzungai, umeentzat egun bat eskaini dutelarik.

Gaur jarraituko dute atzo abian jarri zen hitzaldi saioekin, Ina Rufok eskainiko duen *Transeuropa Cabo Norte Tarifarekin*, 20:00etan gela polibalentean. Leku berebean ere izango da hitzordua bihar, 19:00etan, Jose Ramon Agirrearen *Patagonia* solasaldiari esker. Osteguna umei eskainiko da, Hankatxo taldeak *Hitzak patriketan* antzezlanaren taularatu-tuko baitu, euririk ez balego kanpoko frontoian izango litzatekeena. Euriarekin, ordea, barruko frontoian prestatuko dute emanaldia. Egun berean, Elhuyar eta Hurkoa fundazioen laguntzarekin beste bi hitzaldi emango dituzte herrian, biak ala biak elikaduraren gainekoak: *Zergatik dira hain osasuntsuak barazkiak eta fruituak* eta *Dieta mediterranearen mesedeak*, 19:00etan gela polibalentean eta 16:30ean Ugarterko liburutegian, hurrenez hurren.

KULTUR ASTEA ▶ EGUNEZ EGUN

Kutxak eta Amezketako Udalak antolatu dute Kultur Astea.

**GAUR**

**20:00.** Ina Ruforen *Transeuropa Cabo Norte Tarifa* hitzaldia, gela polibalentean.

**BIHAR**

**19:00.** Jose Ramon Agirrearen *Patagonia* ikus-entzunezkoa, gela polibalentean.

**ETZI**

**16:30.** Ugarte auzoko

liburutegian, Hurkoa fundazioaren laguntzarekin, Leire Ezkurraren *Dieta mediterranearen mesedeak* hitzaldia.

**17:00.** Hankatxo taldearen *Hitzak patriketan* antzezlanaren ekimenez, *Zergatik dira hain osasuntsuak barazkiak eta fruituak?* hitzaldia.

**OSTIRALA**

**21:00.** Bertso afaria Goiko zaharren tabernan, Mikel Mendizabal, Bixente Gorostegi eta Igor Elorza bertsolariekin.

Aisirako tartea azken egunerako gorde dute, ostiralerako alegia, zeinean bertso afaria egingo duten Mikel Mendizabal, Bixente Gorostegi eta Igor Elorza —Bizkaiko txapelduna— bertsolariekin. Urdailazpikoa, pate, txorizoa, saihsakia, postrea, kafea eta kopak dastatu ahal izango dute bertaratuek eta 21:00etatik aurrera hasiko da, Goiko zaharren tabernan. Afarira joateko txartelak lortzeko azken eguna da gaur; udaletxean dira salgai hamar euroren truke.

ALEGIA ▶

## Xantoxen omenezko futbol txapelketa

Alegiako Gaztetxea futbol txapelketa bat abian jartzeko ekimena burutzen ari da, Xantoxen omenezkoa izango dena. Izena mateko epea apirilaren 9a, larunbata, bitartean izango da eta zerrendak Gaztetxean, Ikkiña tabernan, Hilario-enea tabernan eta Etxeberria-enean egongo dira. Txapelketa herrikoi honetan parte hartzeko 30 euroko kuota ordaindu beharko da.

ALEGIA ▶

## Bihar 'Codigo desconocido' zine-klub saioan

Bihar zine-klub saio berria eskainiko dute Alegiako Gaztetxean, 21:30etik aurrera. *Codigo desconocido* filma frantziarra izango da ikusgai. Michael Haneke zuzendariaren filma Parisen garatzen da eta Juliette Binoche, Luminita Gheorghiu, Sepp Bierbichler eta Helene Diarra dira protagonistak. 117 minutu irauten ditu pelikula honek eta kritika oso onak jaso ditu.

IKAZTEGIETA ▶

## Olaberria Euskadiko pistako txapelduna

Leire Olaberria ikaztegiatarak Euskadiko Pistako Txapelketan lehen saria eskuratu berri du, abiadura, 500 metro, *scracht*, puntuaketa eta puntuen probak garaitu ostean, Joana Eslavaren aurretik. Asteburu honetan, berri, Espainiako pistako txapelketan ariko da Olaberria gaztea, Valentziako Luis Puig belodromoan, non sei probetan parte har dezakeen.



Leire Olaberria. N. LATABURU

BALIARRAIN ▶

## Abian dira txekor jatearen lehen prestaketak

Baliarrainen txekor jatea antolatu dute maiatzaren lehen egunean. Herriko frontoian egingo da, 14:00ak aldera txorizo egosia, txekorra, entsalada, bizkotxo eta kafea sartuko direlarik bazkariaren barruan. Txartelak salgai jarriko dira, 20 euroren truke. Apirilaren 23an txartel hauek etxe etxe banatuko dira, eta, egun honetan erosteko aukerarik ez dutenez, apirilaren 27ra bitartean herriko tabernan ere jarriko dira salgai.

IBARRA ▶

## Udal sustapeneko etxebizitzetarako zerrendak

Ibarrako udaletxeko iragarri taulan ikusgai daude Argindegi 18-20 zenbakietan eraikiko diren udal sustapeneko etxebizitzetarako onartu eta baztertutako eskatzaileen behin-behineko zerrendak. Gai honen inguruan edozein eratako alegazioak aurkeztu nahi izanez gero, horretarako epea bihar bertan amaituko da. Baztertutako eskatzaileek falta dituzten dokumentuak Ibarrako udaletxean aurkeztu beharko dituzte.

**ABURUZA Eraikuntzak, S.A.**

Kale Berria, 46 behea • Tel.: 943 69 02 97 • Fax: 943 69 00 52 • 20150 VILLABONA

IBARRA ▶ AIZKORA

# Otañok oso erraz garaitu du Mindegia

Labaiengoari zazpi minutuko alde atera zion ibartarrak; espero zena baino maila apalagoa erakutsi zuen Mindegia



Otaño, Donezteben burutu zuen lanean. JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

IÑIGO TERRADILLOS

Unai Otañok oso erraz garaitu zuen Xabier Mindegia Donezteben igandean egin zuten apustuan. Otaño ibartarrak zortzi kanaerdikoak eta bi oinbikoak 31 minutu eta 10 segundotan ebaki zituen; Mindegia Labaiengoak, berriz, 38 minutu eta 34 segundo behar izan zituen lana amaitzeko. Beraz, alde handiarekin irabazi zuen apostua Ibarraok eta horrekin batera, noski, adostutako 3.000 euroak, alde bakoitzak 1.500 euro jarri baitzituen.

100-60 zegoen hasieran dirua Otañoen alde, baina hasi eta segituan isildu ziren artekariak argi geratu baitzen hasieratik nork irabaziko zuen.

Lehen kana-erdikoan 16 segundo atera zizkion Ibarraok Labaiengoari, eta alde hau handitzen joan zen. Oinbikoarekin hasi zenean 41 segundo zituen alde ibartarrak. Lehen enbor handia amaitzean minutu eta erditik gorako alde atera zuen eta inork ez zuen uste honek bueltarik izango zuenik. Apustuaren erdian bi minutuko alde lortu zuen ibartarrak eta burutu beharreko lana amaitu zuenean, Mindegiari beste bi enbor geratzen zitzaizkion oraindik. Azkenean, alde aza zapi minutukoak izan zen.

Inor gutxik espero zuen apustua hain azkar erabakiko zenik, bientzat ere lehenengoa izan baitzen. Unai Otañok edeki erakutsi zuen maila handiko aizkolaria dela, Mindegia gazteak, berriz, ikasteko asko duela frogatu zuen.

IBARRA ▶

## Garaipen garrantzitsua lortu du Ibarrak etxean

Azken unerarte ez zen erabaki norgehiagoka; garaipena behar zuten maila mantentzeko

I. TERRADILLOS

Garaipen garrantzitsua lortu zuen Ibarrak larunbatean Carnicerias Saenz taldearen aurka. Belabieta kiroldegian izan zen norgehiagoka eta 4-3 irabazi zieten ibartarre arabarrei.

Partida oso zirrarragaria izan zen azken unerarte ez baitzen erabaki. Carnicerias Saenz taldearentzat Ibarrentzat bezala garaipena lortzea ezinbestekoa zen eta horregatik gogor borrokatu ziren puntuak eskuratzeko, baina azkenean etxeko taldeak eskuratu zituen.

Berdindurik hasi zen partida, eta markagailua estreintzen lehenak arabarrak izan ziren. 0-1 ekoarekin iritsi ziren atsedenaldira. Bigarren zatian Ibarraok indartsu eta gogotsu atera ziren. Seigarren minutuan berdintzea lortu zuten. Berrito aurretik jarri ziren arabarrak eta berdintetaren gola sartu zuen Ibarrak ondoren. Aurretik jarri ziren etxekoak eta berdindu egin zuten arabarrek. Amaitzeko 12 segundo geratzen zirenean Cristianek sarturiko golak erabaki zuen partida.

UNAI OTAÑO ▶ AIZKOLARIA

## «Urduritasunak uxatu eta konfidantza berreskuratu dut»

Gustura dago Unai Otaño apustua irabazi ostean, galdutako konfidantza berreskuratu baitu.

**Hain erraz irabaztea espero al zenuen?**

Ez nuen espero. Jakin nuen 40 minuturen inguruan zegoela bere marka eta nik etxean 30 minuturen bueltan ibiltzen naitenez asko harritu nintzen. Bai-

na, hala ere, apustuarekin hasi aurretik ez nuen halako aldeirik ateratzea espero, eta Mindegia ere ez zuen espero.

**Azken aldiko urduritasunak uxatu dira orain, ezta?**

Oso urduri egon naiz azkenaldian. Bidegoianen galdu egin nuen Urrezko Aizkoran eta konfidantza galdu nuen. Garaipen hau oso garrantzitsua izan

da niretzat, indarberritzeko eta nire konfidantza berreskuratzeko.

**Apustua irabazi duzu, zein izango da hurrengo erronka?**

Orain, aizkora utzi nahi dut 15 bat egunez. Atsedenaldiaren ostean berriro hasiko naiz gogor entrenatzen Gipuzkoako eta Euskal Herriko txapelketetarako. ◀



I. TERRADILLOS

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47- behea  
TOLOSA  
Tel.: 943 65 50 37  
Faxa: 943 65 09 44  
e-maila: ennio@inmoennio.com  
www.inmoennio.com

**Alegia.** San Joan kalean 161 m<sup>2</sup>-ko azkeneko etxebizitza salgai, bi terraza ederrekin.

**Berrobi.** Eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Pisu, trastelekua eta garajearekin.

**Berrobi.** Pisu ederra. 3 logela eta 2 balkoi. Kanpoaldera, eguzkitsua.

**Donostia.** Sagues auzoan etxebizitza salgai, igogailuarekin, eguzkitsua.

**Ibarra.** San Ignazio auzoan etxebizitza salgai berokuntzarekin.

**Ibarra.** Eraikuntza berriko 2 logelako etxebizitza salgai. Garajea aukeran.

**Ikaztegieta.** 6 etxe abikien eraikuntza berria. Informazio pertsonala.

**Irua.** Ibai aldera. 3 logela eta bi bainugela. Trasteleku eta garajearekin. Ezin hobeto.

**Irua.** Borda ikusgarria, ikusteko modukoa !!!

**Legorreta.** Pisu merkea. 3 logela, sukaldea, egongela, eta bainugela (berritua). Berokuntza.

142.440 euro !!!

**Tolosaldea.** Eraikuntza berriko bi familientzako etxe zoragarria salgai. Porxe eta lorategiarekin. Ikusteko modukoa !!!

**Tolosa.** Alde Zaharrean hainbat

etxebizitza salgai 155.060 eurotik aurrera.

**Tolosa.** Dekoratzaileak kapritxo apaindutako apartamentua terraza oso eguzkitsuarekin. Gazteentzat egokia!!!

**Tolosa.** Izaskun auzoa. 2 logela (3 egiteko aukerarekin). Berokuntzarekin. Dena kanpoaldera. Eguzkitsua.

**Tolosa.** San Esteban auzoa. 3 logela. Oso eguzkitsua. Dena kanpoaldera. Berokuntzarekin.

**Tolosa.** Amaroz auzoan oso egoera onean dauden etxebizitzak eta berritzeko daudenak salgai.

**Tolosa.** Belate. 3 logela eta 2 bainugela. Berritua.

**Tolosa.** Erdialdean. 130 m<sup>2</sup> etxebizitza salgai. 4 logela (bat bulego bezala egokitua). Estreintzeko, gutzit berritua izan ondoren.

**Tolosa.** Foruen etorbidean gutzit

berritutako etxebizitza. Ikusteko modukoa !!!

**Tolosa.** Nafarroako etorbidean gutzit berritutako 3 logelako etxebizitza salgai berokuntzarekin.

**Tolosa.** Pablo Gorosabel. 12 urte dituen eraikuntza, pisu altua, igogailu eta berokuntzarekin, garajea aukeran.

**Tolosa.** Iurre. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Oso egoera onean.

**Tolosa.** Larramendi. Orain dela gutxioko eraikuntza. 2 logela, sukaldea, egongela eta trastelekua. Berokuntza. Ezin hobeto.

**Tolosa.** Larramendi. 3 logela, egongela, sukalde berritua. 2 bainugela. Igogailua.

**Tolosa.** Agintari kalea. Eraikuntza berriko etxebizitza. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Trastelekua eta berokuntzarekin.

**Tolosa.** Trinkete. 3 logela eta bi bainugela. Egongela ederra. Ezin hobeto !!

**Tolosa.** Zumalakarregi ibiltokian, 101 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza bikaina.

**Tolosa.** Estreintzeko, erabat berritua izan ondoren. Oso kalitate onak. Igogailu eta berokuntzarekin !!!

**Tolosa.** San Frantziskon 46 m<sup>2</sup>-ko lokal komertziala salgai.

**Tolosa.** Erdialdean oso ondo kokatua dagoen taberna salgai.

**Tolosa.** Pablo Gorosabel. Taberna alokairuan.

**Tolosa.** Araba etorbidea. Garajea alokairuan.

**Villabona.** Larrea. Eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Eguzkitsua.

**Zizurkil.** Ernio Bidea. Eraikuntza berriko etxebizitza. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela. Trastelekua pisuan eta ganbaran. Ezin hobeto.

## LEITZA ▶

**Perurenak 215 kilokoarekin marka berria ezarri du**

Jon Rekondo, Urrezko Aizkolarietan kanpoan 25ez behian, baina gazteetan finalean da

J. ASTIBIA

Aramaion zen asteburu honetan Urrezko Aizkolarien kanporaketa saioa eta bi leitzar ziren han, bakoitza bere lanean, ahaleginean.

Inaxio Perurenak bere marka ezarri zuen, esku bakarrarekin, 215 kiloko harri zilindroa bizkarreratu zuen. Jasoaldia txukuna oso eta, garbi eta argia: 15 segundotan, gerrira ekarrita, bi kolpetan igo gora eta ederki berdindu zuen. Horrelaxe hautsi zuen marka eta berea ezarri. Aurrerantz, urteko tenore honetan jada, udako saioekin hasiko dira, markahaleginak utzita.

Eta Jon Rekondok, berriz, ezin izan zuen Iriarte garaitu, 25 urtez beheko Urrezko Aizkolarien finalerdian: 3. enborra aurretik bota zuen arren, «5.ean ezpala itxi egin nuen deskuidatuta: presaka, aurrerazteagatik ezpala tiki samarra hartu eta azkenean, denbora galdu», argitu zion HITZARI atzo. Orpoz-orpo aritu ziren, baina Iriarte, zahartxoa ere bada eta (24 urte ditu), sartu zen finalean.

Dena den, Rekondok hurrengo ingandean, 12:00etan, du 20 urtez azpikoen finala, Zumaian, Ugaitz Mugertzauren aurka

## LEITZA ▶ FUTBOLA



Antton Abruzak baloiaren norabidea asmatu eta geldialdi ederra egin zuen penaltian. JAIONE ASTIBIA

**Hutsnako berdinketa talde liderrarekin**

Partidu baten faltan, hilaren 17an du azkenekoa, oraindik ere ligako txapelkun izateko aukerak baditu talde leitzarrek

JAIONE ASTIBIA

Haizea ibili arren, eguraldi polita lagun, partido ona ikusi zuten, arratsalde pasa Arkixkil futbol zelaian bildu ziren zale-tuek, aspaldian izan den jende gehientsuena, bestalde.

Partidu ona jokatu zuen Aurrerak, herenegun, taldeko liderra den Baztanen aurka. Azkenean golik ikusterik izan ez bazen ere, etxeko taldea erabat gailenduta aritu zen jokoan, aurkariaren ate aurrean behi eta berriz presio eginez, benetako gol aukera politak sortuz,

baina zorteak ere ez zion gehiegi lagundu, baloiak hiru aldiz jo baitzuen zutoina eta beste bitan ere aukera oso garbiak izan arren, sare artera sartzetik ez zuten asmatu. Bestalde, baztandarren aldeko penaltia adierazi zuen (17'), oso argia, baina Abruzak atezain leitzar fin ibili zen eta baloia ederki asko gelditu zuen. Azkenik ez zen golik izan Arkixkil.

Golen faltan, ordea, txartelak asko izan ziren: 6 Baztanentzat, 5 Aurrerarentzat. Joko zakar samarra erabili zuten, baina partiduko epaileak erraz an-

tzean ere atera zituen, eskuz eramandako hainbat baloi ikusi ez zituen arren.

O eta Oko emaitz honekin, beraz, sailkapenak bere horretan jarraitzen du: Baztanek aurreneko jarraitzen du eta Aurrera bi puntura dago. Ligako txapelketa bukatzeko partido bakarra gelditzen zaie, hilaren 17koa, eta biek hala biei etxean jokatzeko egokitu zaie. Baztanen Unibertsitatearekin duen bitartean, Aurrerak Huarterekin du. Leitzarrek irabazi eta haiek berdinketa, horra, txapela eskura.

## LEITZA ▶

**Haur Eskolan matrikulatzeko epea irekita dago jadanik**

Haur Eskolan bertan egin daiteke, hil honen azken egunera arte, eskaera agiria betez



Haur eskolako ikasleak. J. A.

J. ASTIBIA

Hurrengo ikasturtean umeak Haur Eskolara eraman nahi dituzten gurasoek, matrikulazio eskaerak egiteko epea zabalik dute.

Hil honen aurrenetik eta azken egunera arte, alegia, apirilaren 30a izan da azken eguna, 2005-2006 ikasturterako umeen matrikulazio eskaera haur eskolara bertara joanda egin daiteke. Eskaera egiteko han bertan eskura jarriko duten agiri bat bete behar omen da eta matrikulazioa egiteko beharrezko diren agirien zerrendaren berri ere emanen omen dute.

Eskaera egina izanik, matrikulaziorako itxaron zerrenda osatuta geldituko da.

hitza

**lagunen txokoa**

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5\*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

\*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun laguntzaileek eskuratuko dute

**'Lagun ezazu HITZA laguntzen'**

DENDA HAUEK HITZAREN LAGUNTZAILEAK DIRA

**Avalon**  
osagaia k  
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

**honetekin**  
TOLOSA  
Tel.: 943 65 24 30

**kanikak**  
San Frantzisko, 21 • Tolosa  
Tel.: 945 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 04 62

**ILUMINAZIOA**

**SHANTI KIROLAK**  
Rondilla, 11  
TOLOSA  
Tel.: 943 67 40 74

**MUGAR**  
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 56 85

**LIZARRIBAR**  
OINETAKOAK  
Arostegieta kalean  
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

**Harpidedunei banatua ▶ 2005ko apirilaren 5a, asteartea ▶ III. urtea**

'HITZA' LAGUNTZEN  
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Alaitzola, Aduna, Abatua, Alegia, Alkiza, Alzo, Ameketa,  
Aranda, Anso, Balamán, Beldarza, Berastegi, Berrozi, Estuan, Hernialde,  
Ibarra, Irujo, Irujo, Jauregui, Leizola, Oñativia, Oñeta, Tolosa, Villabona,  
Zuzuri Besterik: Leizaldeko Euskara Batzordea

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

Eusko  
Jaurjaritza.  
Kultura Salla

GAURKO  
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena **13** hotzera **10**

BIHARKO  
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



**HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA**  
(zalantzak, harpide egiteko...)

**943 30 43 46**

## AGURRAK ▶



### ZORIONAK

**Pakita eta Jose Miguel (Leitza).** Atzo 60 urte ezkondu zirela.  
Bere 9 seme-alaben, subi-errain eta 15 biloben partetik  
zorionak eta 100 urte arte.



### URTE ASKOAN

**Asier Ugartemendia Urbietta**  
(Alkiza). Gaur 5 urte.  
Ebekoen partetik muxu bat.



### URTE ASKOAN

**Zuriñe Duroudier Renedo**  
(Ibarra). 9 urte. Zorionak  
amaren partetik. Muxu handi bat.



### ZORIONAK MINDE!

Koadrilakoak beti hirekin egongo gabirik!



### ZORIONAK MINDE!

Orain inoiz baino ozenago: euskal presoak Euskal Herrira.

## AGENDA ▶

### DEIALDIAK

**Amezketak.** Kultur Astea:  
*Transeuropa cabo norte Tarifa*  
hitza, Ina Ruforen eskutik  
20:00etan gela polibalentean.  
Bihar, Jose Ramon Agirrereren  
*Patagonia* ikus-entzuzkoa,  
ordu eta leku berean.

**Larraul.** Ipuin kontaketa.  
Liburutegian 18:30ean.

**Ibarra.** Apirilaren 16rako  
Xabiererra irteera antolatu du  
Bizi nahi jubilatu eta  
pentsiodunen elkarteak. Izen-  
ematea: elkartean 11:00etatik  
13:00etara.

**Tolosa.** Kontu mugimenduak,  
intsuldaketak eta  
transferentziak Interneten  
ikastaroak Amaroako KZgunean  
17:00etatik 19:00etara.

**Tolosa.** Automata  
programagari hastapenak  
(Siemens S7) ikastaroa hasiko  
da 6an Tolosaldea Goi Mailako  
Lanbide Heziketa Institutuan,  
18:00etatik 21:00etara. Doan  
da eta lekuak badaude. 943 65  
11 47.

**Tolosa.** Apirilaren 10ean 51ko  
kintoak elkartuko dira.  
11:00etan meza San Frantzisko  
elizan hildako kintoen alde eta  
14:00etan bazkaria Mendi-alde  
jatekxan. Izen-ematea 943 65  
45 92 (Jose Maria Tolosa), 943  
52 54 41 (Jose Mendizabal) eta  
65 17 99 (Mendi-alde jatekxa).

**Tolosa.** Maiatzaren 28tik  
ekainaren 11ra Saloura irteera  
antolatu du Harizpe jubilatu  
elkarteak. Prezioa: 350 euro  
bazkideek eta 355 ez  
bazkideek. Izen-ematea:

elkartean 10:00etatik  
12:00etara.

**Tolosa.** Udako hilabete batean  
euskara ikasleak hartzeko herri  
euskaldunetako familiak behar  
dira. Familiak 580 euro jasoko  
du hilabete bakoitzeko.

Informazioa: Euskara Zerbitzua  
(943 65 44 66) edo Urrats  
euskaltegia (932 47 44 47).

**Tolosa.** Bigarren Hezkuntzako  
graduatu titulua lortzeko proba  
libreak izango dira maiatzaren  
17an HHIn. Izen-ematea,  
bertan, hilaren 27a bitarte.  
EAEn bizi, 18 urte izan eta  
DBHn matrikulatua ez izatea  
behar da.

**Villabona.** Apirilaren 14rako  
Iratxera irteera antolatu du  
Biltoki jubilatu elkarteak 25  
eurotan. Oparia izango da. Izen-  
ematea, Biltokian. Bestalde,  
urteko kuota ordain daiteke  
ekainaren bukaera arte.

### ERAKUSKETAK

**Tolosa.** Aitor Ruiz de Eginu.  
Eskultura. Aranburu Jauregia.

**Tolosa.** Mikel Azpilikueta.

Koadroak. Aranburu Jauregia.

**Tolosa.** Jose Antonio Gorgojo.

Koadroak. Sorron denda.

**Tolosa.** Ana Jesus Ansorena.

Zeramikak. Saikin taberna.

**Tolosa.** Paco Tena. Koadroak.

Lanbroa taberna.

### ZINEMA

**Alegia.** *Codigo desconocido*

Gaztebaxan bihar 21:30ean.

**Tolosa.** *Los chicos del coro.*

19:30ean eta 22:30ean Leidor

zinemaren. Ikuslearen eguna.



### URTE ASKOAN

**Ion Mintegiaga (Ibarra).** Gaur 26 urte. Zorionak eta besarkada  
handi bat beti gogoan zaitugun familiaren partetik.

**HITZA,**  
zorion agurren  
tartea

HITZAren egoitzetara:  
Araba etorbidea, 5 behea  
TOLOSA  
Udaletako bulegoa  
LEITZA

Mesedez, argazkia bi  
egun lehenago ekarri.  
Mila esker!

